

# txintxarri



# 'Klika' egiteko ordua

Korrikaren lekukoa Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibiliko da ostiralean. Egun osoko festa antolatu dute / 2-9



**Ges**  
ASEGURUAK

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia



Gaur Korrikako lekukoa eramango duten elkarte eta eragileen talde argazkia egin zuten aurkezpenean. TXINTXARRI

# Esperotako eguna iritsi da: Korrika herrian da

Gaur iritsiko da 21. Korrika Lasarte-Oriara, 15:33ean. Hogeitazero eman dute atxikipena, eta hamabost bat kilometro egingo dituzte herrian. Korrika Txikia 11:00etatik aurrera egingo dute. Eguerdian, gazteen makarroi jana Okendon

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskal Herria hasi da Klika egiten. Apirilaren 4an abiatu zen 21. Korrika Garestik (Nafarroa). Hainbat zoro zoragarri dabilta uneotan Gipuzkoan barrena, lekukoa eskuz esku pasatzen eta euskararen aldeko aldarriak lau haizetara zabaltzen. Gaur, ostirala, biziko dituzte sentipen horiek lasarteoriarrek: 15:33ean ailegatuko da ikurrinadun testigua Zubieta bidetik. Egun handi horretan ezustekorik egon ez dadin,

herritarrek txukun bete dituzte beroketa ariketak, giharrak luzatzeko. Muntteri-AEK euskaltegiak antolatuta, ekitaldia aurkeztu zuten lehengo ostiralean, kultur etxean. Hogeitazero eragilek -ikastetxeak eta elkarte gastronomikoak taldetzat hartuta- 15 kilometro erdi egingo dituzte. Korrika Txikia ere gaur izango da, goizeko hamaiketan.

Musikak girotu zuen aurkezpen ekitaldiaren hasiera. Dinbi Banda batukada taldeak markatu zuen aretorea sartzeko

erritmoa. Barruan, berriz, pianoa, gitarrak eta ahotsa. Xumela korauek ere abestu zuen, irrintzi eta guzti. Ondoren, Erketz EDTko bost dantzari igo ziren oholtza gainera, agurra dantzatzera.

Duela bi urteko Korrika gogoratu zuten horren ostean ikus-entzuleek, gaztetxoekin zein nagusien lasterkaldien bideoekin.

Antolatzaileek aurtengo Korrikako jantziak erakutsi zituzten: hainbat modelok desfilatu zuten auditorioan, eta

oholtzara igo ziren gero. Ekitaldia bukatutakoan makina bat herritarrek erosi zituzten kamisetak, jertseak eta beste hamaika gauza.

Gorputza mugitzeko tarterik ere izan zen: Korrikaren egunean dantzatzeko koreografia bat prestatu dute herriko ikastetxeetako guraso elkarteetako hainbat kidek.

Hogeitazero eragilek beteko dute 21. Korrikak Lasarte-Oriara egingo duen ibilbidea (Ikus 4. eta 5. orrialdean dagoen mapa). Banan bana igo ziren taula gainera, dortsalak jasotzera. Denak aipatu eta talde argazkia atera zuten.

## Bertso musikatuak

Horrez gain, Korrika Kulturala egin du egunotan Muntteri-AEK euskaltegiak. Ez da kasualitatea bertso saio musikatuaz, Liluraren laborategia eta Miss Karaoke antzerkiez ere gozatu dute lasarteoriarrek korrika egin aurretik.

Ez da kasualitatea Ttakunenea txiki geratu izana igande arratsaldean. Lasarteoriarrek irrikitan daude 21. Korrika iristeko, eta, beroketa ariketak bertso musikatuak entzun bitartean egiteko aukera badute, zer esanik ez. Saio bikaina eskaini zuten Ane Labaka, Miren Amuriza, Miren Artetxe eta Alaia Martin bertsolariak. Amaia Agirre arduratu zen gaiak jartzeaz. Instrumentuekin Eneko Sierra eta Beñat Antxustegi aritu ziren.

Protagonisten aurkezpena berezia izan zen. Bertso Eskolako ikasleak arduratu ziren ikus-entzuleei informazioa emateaz; koplaka, jakina. Arratsaldeko lehenengo txalo zaparrada eta gero hasi ziren bertsolariak

lanean. Orain arte aipatutako eta antzeko gaiekin aritu ziren bertsolariak kantuan eta imajinarioarekin jolasean. Beste ariketa bat: bakoitzaren txikitako argazki bana ikusi eta asmatu behar izan zuten nor den nor.

Haurrek ere primeran pasatu zuten larunbat arratsaldean. Sun Mago bihurriak hamaika magia trikimailu oholtzaratu zituen, ikus-entzule gaztetxoekin harridurararako. Magoaren lagunak publikoaren eserlekuetara jaitsi eta boluntario batzuk gonbidatu zituzten eurekin jolastera.

Atzo, berriz, ederki egin ahal izan zuten barre helduek, Miss Karaoke antzerkiarekin.

## Gaurko egitaraua

Gaur, ostirala, da egun handia; Muntteri-AEK euskaltegiak egitarau zabala prestatu du. Korrika Txikia izango da eguneko aurreneko ekintza. 11:00etan hasiko da lasterketa; herriko ikastetxeetako ikasleek parte hartuko dute. Eguerdian Okendo plazan, ikastetxeetako haurrek azken asteetan sortu duten koreografia erakutsiko dute. Bertatik mugitu gabe, goizean erabilitako indarrak berritzeko, makarroi-jana egingo dute gazteek.

21. Korrika 15:33ean iritsiko da Lasarte-Oriara. Ordu erdi lehenago hasiko da herria girotzen Oaintxe in deu! txaranga. Arratsaldean ere ibiliko dira herrian barrena.

## AURKEZPENAK ETA KORRIKA KULTURALEKO EKINTZEK MOTORRAK BEROTU DITUZTE

**Fernández**  
ehunak

**Klika**  
KORRIKA!

*Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!*

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

**Israel & Grezia**

**NOAOK BIDAIAK**

**IRTEERA 2019ko IRAILEAN**  
Noaak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

T: 943 373 613 • info@noaak.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak 17:30ean hasiko dira emanaldiak eskaintzen. Okendon abiatu eta herritik mugituko dira gero. Ordu berean herri kirolean jokatzeko aukera eskainiko du Ostadarrek, plaza horretan. Xumela koruko kideak 18:00etan hasiko dira abesten.

#### Iluntzera arte

Festa giroak iluntzera arte jarraituko du Okendo plazan. Ttiriki Ttarraka musika eskolak erromeria eskainiko du 18:45ean. 20:00etan pintxo-afaria hasiko da; Euskaraldiko hamaikakoak girotuko du, Udal Musika Eskolako hainbat kiderekin batera. 21:30ean bertsolariak ariko dira. Ordu erdi geroago, gustura barre egiteko aukera: esketxa eskainiko dute Bea Egizabalek eta Intza Alkainek. Ramoni eta Loitzuneren rola hartuta, Korrikak iraun bitartean hainbat bideo ari dira grabatzen *Berria* egunkariarekin. Egunari parranda giroa emango diote Sorgin Jaiek: DJ Ixter ariko da plaza girotzen, eta, animatzen diren lasarteoriatarrek karaokean kantatu ahalko dute.

#### BERTSO SAIO MUSIKATUA ETA HAURRENTZAKO ANTZERKIAK EGIN DITZUTE EGUNOTAN



Ez da kasualitatea bertso saio musikatuarekin gozatu zuten Ttakunenean. TXINTXARRI



Etxeko txikiek Sun magoaren ikuskizunean parte hartu zuten. TXINTXARRI



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

#### 21 abesti

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei... zortzi, bederatzi, hamar... eta dagoeneko 21. ekitaldia du Korrikak. 21 Korrika, 21 abesti. Korrika bakoitzarekin eta kanta bakoitzarekin momentu bakarrak bizi izan ditugu, ez al da hala?

Korrika aldarrikapenaren gainetik sentimenduz eta emozioz betetako martxa da, Korrikaren atzean euskarari bai esaten dioten bat, bi eta milaka korrikari direla sentitzen dugulako. Edota Tapia eta Leturiak abestu moduan, euskararen bizitzaren geroaren atzetik, gure maratonia eta gure arrazoia delako.

Izan ere, Korrika bezalako herriko ekintzak noizean behin esnatzeko beharrezkoak dira Eganek dioen bezala (nola ahaztu Xabier Saldiasen "olarari rari" mitiko hori!).

Akelarrek, Gozategik, Kepa Junkerak, Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak, Betagarrik, Esne Beltzak, Fermin Muguruzak (bitan)... gonbidatu gaituzte Korrikari parte hartzea *Korrika Badator*, *Goazen Korrika*, *Aide Korrika*, *Bagoaz korrika* bezalako mezuekin. Euskalakariak eta euskahaldunak ibili gara zirkorrika urte hauetan guztietan, eta ganoraz bizitzeko gomendioa luzatu digute: euskaraz jalgi eta erdara lagatzea. Malabaristak, trapezistak, funanbulistak izan edota Afrika, Gernikan, Sohütan edo Amerikan sortuak, euskara herrian dagoela erakutsi digu Korrikak, eta mundu bat dagoela atzean.

Oraingoan, berriz, Euskal Herria bitan banatu eta gero, klika egiteko garaia iritsi zaigu. Ziur gaurkoan ere sentipen mordoa biziko ditugula gurean, arnasestuka lasterka egiten dugun bitartean. Aurten, gainera, niretzat berezia den egunean pasako da Korrika Lasartetik, euskara oparitu zidan pertsonaren urtebetetzea baita. Zorionak ama!



 **Neinor** HOMES


## USURBIL HOMES

Zure ametsetako etxebizitza  
berria Usurbilen

Terraza zabalekin eta lorategiekin baxuetan

Eskura ezazu informazio gehiago gure Neinor Store-ean: **Hipodromo Etorbidea, 10** (Lasarte-Oria)

**900 11 00 22 - neinorhomes.com**



- 1 20
- 2 20
- 3 20
- 4 20
- 5 20
- 6 20
- 7 20
- 8 20



**MAITE**

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu  
 Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
 Tel. 943 37 08 45



**Korrika!**  
**ika, ika, ika,**  
**Maite Estetika!**

Gure tratamendu eta zerbitzuak opari-txartel moduan oparitu ditzakezu!  
*Keinu bikiek bizitza alaitzen dutelako*

- Manikura edota pedikura
  - Makillajea
  - Aurpegi edota gorputz tratamenduak
  - Solariuma
  - Mota ezberdinetako depilazioak
  - Betileen tindatzea eta *lifting*-a...
- ZERBITZU MISTOAK



**21. korrika**  
2019ko apirilaren 4tik 14ra  
**GARETIK GASTEIZA**

- 045Km: Ttakun
- 045Km: Erketz-Ostadar
- 046Km: Euskaltegia
- 046Km: EAGI
- 047Km: Aterpea
- 047Km: Zabaleta Auzolan
- 048Km: LAB sindikatua
- 048Km: Guraso Elkarteak

- 9 2049Km: Ikastetxeak
- 10 2049Km: TSST
- 11 2050Km: Sorgin Jaiak eta Xumela
- 12 2050Km: Argia eta Antza
- 13 2051Km: Lasarte-Oriako Udala
- 14 2051Km: Kukuka eta Katxiporreta
- 15 2052Km: Elkarte Gastronomikoak
- 16 2053Km: EH Bildu



aldizkariak  
ESKU-ORRIAK  
liburuak  
katalogoak  
IRUDI KORPORATIBOA  
kartelak  
EGUTEGIAK  
papeleria  
koadernoak  
AGENDAK

INPRENTA  
offset eta digitala

DISEINU  
GRAFIKOA

DISEINU  
EDITORIALA

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
www.antza.eus

# "Korrika ideiaia ero bat da, eta denok parte izatea kristorena da"

**ANE LABAKA MAYOZ** BERTSOLARIA

Lasarte-Oriako kale eta maldetan ahal beste Korrika egiteko prest eta gogotsu dago herritarra. "Harrotasun kolektibo" hori gaur heldu aurretik, Korrika Kulturalaren barruan, 'Ez da kasualitatea' bertso saioan aritu da lasarteoriatarra Ttakunenea elkartearen

**Maitane Aldanondo**

Hitzekiko lilurak bultzatu zuen bertsolaritzara Ane Labaka (Lasarte-Oria, 1992) 12 urte zituela. Oholtza gaineko bizipenek ateak zabaltu zizkioten feminismoari, eta horri lotuta, umorea aztertu du ere. Bizitza erdia errima eta puntutan igarota, hizkuntza lanabes duela sortzen jarraitzen du hainbat esparrutan. **Korrika iritsiko den egun berean helduko da elkarrizketa hau herriko etxeetara. Non egongo zara zu?**

Herrian. Agenda libratu dut eta pozik nago. Hemen egingo dut Korrika, Zubietan hasi eta ea noraino aguantatzen dudana...

**Zer da zuretzat Korrika?**

Asko mugitzen nau, oso harro sentiarazten nau. Pila bat

eragiten dit jendetza dagoenean; baina, batez ere, Nafarroako Erriberan, leku txiki batean lau pertsona bakarrik ikustea, gauez, elurretan... Egunotan bideoak ikusten aritu naiz, negarrez, hunkituta. Harrotasun kolektibo bat da, hemen gaudela esateko, ospatzeko eta aldarrikatzeko modu bat. Ideia ero bat, eta denok parte izatea kristorena da.

**Korrika Kulturalaren barruan Ez da kasualitatea saioa egin zenuten igandean. Nola bizi izan zenuen?**

Oso ondo. Jende pila bat egon zen, Ttakunenea beteta, bertso eskolako nire talde batek kantatu zuen... Oso polita izan zen. *Ez da kasualitatea kristorena* izatera kondentatuta dagoen saioa da. Gai jartzaileak pila

bat mimatzen du, kantu kideekin konplizitatea duzu, musikak atmosfera bat sortzen laguntzen du, publikoa oso entregatua dago, lekua... Ekuazio perfektua da, eta besteetan baino exigenteagoak gara gure buruarekin, munduko saiorik onena egin nahi dugu... Urduri nengoen, herrikideen aurrean egitea berezia da, eta oso emozionatuta bukatu nuen.

**Bertsoaletasunik ba al da herrian?**

Bai. Gazteak ikusten ditut indartsu. Ume eta gaztetxo talde pila bat daude bai Landaberrin bai Oriarten ere; urte batzuk daramatzate gurekin bertsoak lantzen. Antolatzen duzu bertso afari literarioa edo igandeko saioa, eta erantzuna beti da oso



Ane Labaka Mayo bertsolaria igandeko "Ez da kasualitatea" saioan. TXINTXARRI

ona publikoaren aldetik. Esango nuke euskal kultura nahiko presente dagoela herrian, eta bertsolaritzak bere lekua duela. **Zu 12 urterekin hasi zinen bertsoan. Zerk bultzatu zintuen?**

Hitzekiko nuen lilura-edo praktikan jartzeko leku bat zen.

Gustatzen zitzaidan idaztea, irakurtzea... Bertso eskolan hasi nintzen, baina poesia eskola bat-edo egon izan balitz, han bukatuko nukeen. Hitzekin jolasteko gogo zegoen hasieran, orain erakartzen nauena da sentitzen dudala bere txikian

## I. Urruzola aroztegia

## Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurrira
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

[www.iurruzola-aroztegia.com](http://www.iurruzola-aroztegia.com)



**ika, ika, ika badator KORRIKA!**

[urruzolaaroztegia@gmail.com](mailto:urruzolaaroztegia@gmail.com)  
943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria

balio duela kontzientziak pizteko, eragiteko, gauza batzuk iraultzeko... Kanal bat da nahi ditudan mezuak transmititzeko. **Zer islatu nahi duzue Ez da kasualitatea saioarekin?**

Konturatu gara askotan ez bada martxoaren 8a, azaroaren 25a edo horrelako egun puntualak ez daukagula aukerarik elkarrekin kantatzeko. Ez daukagu apenas gunerik esperimentatzeko guk nola kantatu nahi dugun, zeri buruz, zer umore mota egin nahi dugun... Gabezia horri erantzuteko sortu zen, diskurtso feministak pixka bat praktikan jartzeko eta esateko: "Goazen ikustera zer pasatzen den emakumeok gure artean kantatzean".

**Zuk zeuk feminismoa bertsolaritzaren bidez ezagutu zenuen, ezta?**

Bai. Gasteizera joan nintzenean ikastera fase bat izan nuen; pixka bat ezeroso nengoen beste plaza batzuetan bertsotan. Ez nuen oso ondo identifikatzen, eta pentsatzen nuen: "Ez dakit balio dudan honetarako, zer ari naiz hemen?"... Justu orduan emakume bertsolarien topaketa bat antolatu

zuten, eta ez dakit oso ondo zergatik, apuntatu, eta joan nintzen. Kristorena izan zen. Une horretan niretzat erreferenteak ziren emakume bertsolariak entzun nituen esaten gabezia hori emakume askok sentitzen genuela. Liberazioa izan zen, ulertu nuelako ez zela niri zegokidan zerbait, baizik eta egitura oso bat zegoela, botere harremanak, genero sistema... Gainera, ikusi nuen bertsolaritzan sortzen ari zirela espazio batzuk horri buelta emateko, eta hor leku bat izan nezakeela. Hortik jorratzen hasi nintzen bertsolaritza eta bizitzara ere eraman nuen. **Eta zer ekarri dio feminismoak zure bertsolaritzari?**

Sentitzen dut pila bat ahaldundu naizela jendaurrean. Une horretan sentitzen nuen umorea egiteko kapaz ez nintzela, graziarik ez nuela, gai batzuei buruz ez nekiela kantatzen... Onartzea zure buruari ere beste kode batetik egin daitekeela bertsotan, zalantzatik gehiago; batzuetan zaugarri agertzea. Klik bat egon zen hor. Iruditzen zait pila bat aberastu nauela

bai bertsolari eta bai pertsona bezala.

**Umorea aipatu duzu. Bertsolaritzaren umorea genero ikuspegitik landu duzu bi ikerketatan eta Erradikalak gara ikuskizunean. Zer aztertu duzu?**

Ikusi nuen umorea bazela gai bat askotan aipatzen zena, baina inork heltzen ez ziona. Horrela esplikatu dezaket eskolarteko txapelketan hasi nintzenean emakume bertsolari gazteoi egotzen zitzaigula ona ginela diskurtsoan, teknikoki, serioan..., eta aldi berean, ez zigutela esaten txarrak ginenez umorezko gaitan, graziarik ez genuela; baina joan ginen pixkana ulertzen esparru bat guri zegokigula eta bestea ez, gure umorezko alderdia mutilatzen. Hasi nintzenean *Ez da kasualitatea* bezalako eremutan kantatzen konturatu nintzen Ane bertsolaria ez dela

**"EUSKAL KULTURA NAHIKO PRESENTE DAGO HERRIAN, ETA BERTSOLARITZAK BERE LEKUA DU"**

umoretsua, baina aldatzen diozu ekuazioa, zein daukan ondoan, zein gai jartzen diozun, publikoan zein dagoen eta kristoren barre algarak egin ditzake bai berak, bai publikoak. Ane ez da umoretsua ala Ane ez dago eroso umore kode jakin batean eta beste zerbait sortu nahi du? Horren inguruan hasi nintzen ikertzen. *Erradikalak gara* Beatriz Egizabalekin sortu nuen umoretik. Iruditzen zait kristoren arma dela gauzak esateko. Gauza txikietan lupa jarrita askoz indar gehiago eduki daitekeela.

**Txakur Gorria kooperatiba txikia eratu duzu beste hiru emakume sortzaileekin. Zergatik?**

Bi bertsolari eta bi ilustratzaile gara. Sormena kolektiboan egiteak kristoren garrantzia dauka niretzat. Taldeak indar handia du, blokeatzen zarenean norbait edukitzea nondik tira esateko. Gauza pila egin ditut bertan bakarrik ausartuko ez nintekeena. Ikasketa prozesua itzela da, kristoren aukera da niretzat. Sormena beti bigarren planoan nuen eta lehenengora eramateko aukera eman digu eta esateko:

"Sortzaile izan nahi dut eta saiatu nahi dut hemendik duin bizitzen". **Peru Abarka album saria irabazi zenuen iaz Ezpainetakoa kontaktarekin eta Txakur Gorriako kide Malen Amenabarrek ilustrazio saria. Beste liburu batzuk atera dituzue, baina hau berezia da, ezta?** Kristorena ilusioa eta aitortza izan zen, liburu bat izatea zure izenarekin, zure lagun batek ilustratua. Esperientzia ona. Emakume gazte baten pentsamenduak dira, eta etenetan gogoeta orokorrako batzuk sartzen dira. Gorputzean jartzen da arreta, gorputza da lotura ematen diona. Malenek ere, justu, gorputz atalak marraztu zituen. Gorputzean fokua jarrita, beste gauza handiago batzuk azaldu nahi dira, izan daiteke genero sistema edo zapalkuntza. **Zein proiektu dituzu esku artean?** Zutabegilea naiz *Berria*, *Argia*, *Ttap...* leku askotan. Bertsotan, irakasle nabil Lasarten; eta *Erradikalak gara*-ren bigarren partea prestatzen ari gara: *Erradikalak ginen*. Kolektiboan, proiektu asko ditugu: *Mugarrika*, *H-Artze* emanaldia...

# Maitete

# BETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzaren administrazioa**

egin **Klika** egin korrika

# "Unibertso digitalean ere egotea garrantzitsua da"

**IÑAKI LOPEZ DE LUZURIAGA** WIKIMEDIAKO EKINTZAILEA

Itzultzailea eta sareko aktibista da Lopez de Luzuriaga, Euskal Wikilarien Kultur Elkartearen kidea. Tailerrak antolatu ditu herrian, Lasarte-Oriaren irudia indartzeko

## Adrian Garcia

Modu asko daude euskararen alde egiteko. Egun hauetan hizkuntzarekiko atxikimendua erakutsi dute milaka herritarrek, Euskal Herriko errepideetan korri egiten eta lekukoa eskuz eskuz pasatzen. Baina beste dimentsio bat ere hartu du Korrikak, birtualagoa. Sarean euskararen presentzia indartzeko, eta bide batez, Lasarte-Oriarena, tresna oso aproposa da Wikipedia entziklopedia askea. Helburu horrekin lehen ikastaroa eman du Iñaki Lopez de Luzuriaga ekintzaileak (Lasarte-Oria, 1973). **Nola joan da edukiak lizentzia librean partekatzearen lehen ikastaroa? Dozena erdi bat bildu zirenen.**

Gustura aritu ginen, eta jendea gogoz dago jarraitzeko. Egia esatearren, hastapena besterik ez da izan. Oinarritzaileena ikasi dugu: argazki bat igotzea Wikimedia Commonsara. Asmoa da bigarren tailer bat antolatzea, Korrika eta gero sortutako edukiak, bideoak eta besteak igotzeko.

**Korrika abiapuntu gisa hartu duzu, baina azken helburua Lasarte-Oriaren izena mundu digitalean zabaltzea izango litzateke, ezta?** Beste herrietan ere egin izan dute. Donostian, adibidez. Iurretapedia ere egin zuten,



TXINTXARRI

Durangotik banandu ziren urteurrenean.

**Zein da Wikipediaren funtsa? Ezagutza denon eskura jarri nahi duzue?**

Izaera kolaboratiboa du, hau da, denon artean informazioa osatzea da funtsa. *Wiki* hitzak hori esan nahi du, askoren artean egiten den zerbait da. Gero eduki horrek guztiak jendearengana iritsi behar du, norberaren hizkuntzan. Badaude baldintza batzuk, jarraitu beharreko arautxo batzuk: ezin

da norberaren ikerketa argitaratu, dagoeneko dauden datuetan oinarritu behar da, autoritatea duen dokumentu batean...

**Lizentzia librearen pean lan egiten duzue.**

Copyright arazo handiak daude egun, ezin da Internetetik edozein gauza hartu gero erabiltzeko. Lizentzia askeak ematen dio aukera edonori, munduko edozein txokotatik, baimenik eskatu gabe erabili ahal izateko edukia, betiere

aitatzen badu nork egin duen jatorrizko artxibo hori.

**Wikipedia bada ezaguna, baina horren barruan badaude beharbada ezegunagoak diren atalak.**

Jatorrizko proiektua zen Wikipedia, ingelesez. Gero beste hizkuntza askotara hasi zen zabaltzen. Baina hori hornitzeko beharra ikusi zen, beste biltegi espezializatuagoak sortzeko, behar espezifikokoak zituztenak. Esaterako, *Wikiteka*-k testu askeak gordetzen ditu, euskarari buruzkoak. Adibidez, hor dago 1931ko Lizarrako estatutua. Normalean testu zaharrak dira, agiri zaharrak; ez dute copyrightik.

**Argazkietarako ere biltegi bat badago.**

Commons da, Wikipediaren ondoren agian erabili. Azken batean, argazkiak, mapak, bideoak eta grafikoak dira.

**Hizkuntza gutxituen aldetik, garrantzitsua da Wikipedia, sarean presentzia indartzen duelako.**

Halaxe da. Wikipedian 300 bat hizkuntza daude, eta euskara 29. tokian dago artikuluko kopuruaren aldetik. Besterik da zenbat erabiltzen den. Hizkuntza gutxituen artean katalanak daude lehen postuan, baina euskara oso ondo dago sailkapen horretan. Danimarkarraren, turkiarraren eta estoniarraren aurretik dago euskara, estatu bat atzetik duten hizkuntza baten aurretik, alegia. **Zalantzan jarri izan da Wikipediaren fidagarritasuna, edonork duelako edukiak moldatzeko aukera.**

Bai, edonork du aukera horretarako, baina norbaitek gezur oso nabarmen bat jartzen badu, gutxi iraungo du, kontrola badagoelako. Agian egon daiteke hutsegiteren bat, baina gauza sinetsu bat jarritz gero, segituan kenduko dute.

**Euskal Wikilarien Elkartearen sortu zenuten orain urte batzuk.**

Oso sakabanatuta zeuden wikilariak, eta elkartzeko beharra ikusi zen. Orain hiru urte sortu zen Euskal Wikilarien Kultur Elkarte, ordezkaritza bat ezartzeko Wikipedian, euskarari dagozkion kontuetan koordinatzeko. Elkartekoa izan gabe ere lasai-lasai egin ditzakezu gauzak euskal Wikipedian.

**Alde horretatik, hizkuntza gutxituen ekintzaileak biltzen al zarete batera indarra egiteko?**

Gauza bat da gure presentzia fisikoa, eta beste bat gure itzala unibertso digitalean. Hor egotea ere garrantzitsua da, batez ere hizkuntza gutxituentzako. Eta horretan saiatzen gara. Halere, desberdin beharra dago; Europako hizkuntza gutxituen testuingurua ez da berdina beste askorekin alderatuta. Batzuek alfabetorik ere ez dute, ezta hizkuntza estandarizaturik ere. Alde horretatik, euskararen Wikipediaren proiektua oso indartsu dago. Galeskoak oso interesatuta daude guk egiten dugunarekin. Ona da biltzea, ideiak partekatu eta inspirazioa bilatzeko.

**Hezkuntza proiektua egin duzue asteburuan, Donostiako Kursoalen. Konferentzia handia izan da. Zer landu duzue?**

Oso proiektu indartsua da; Eusko Jaurlaritzaren babesa ere izan du. Wikipedia hezkuntzarako bitarteko gisa erabiltzeko proposatu da. Laburbilduz, ikasleek irakasleari aurkezten dizkieten lantxo horiek zuzenean Wikipediara igotzea. Balio handia dauka. Lana egitearekin batera ikasten duzunaz gainera, kolaboratzen ere ikasten da, mundu digitalean aritzen eta testuak atalka aurkezten.



**Klika euskara, klika Korrika!**

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



**Carrefour  
express**



# Makarroiak eta txapak, euskararen lantresnak

DBH eta batxilergoko ikasleak batzordeetan antolatu dira, eskola orduz kanpo eta haien kabuz euskararen alde lan egiteko. Ttakun Kultur Elkarteko koordinatzaileak dinamizatuta, Euskaraldiaren eta Korrikaren harira ekitaldiak antolatu dituzte

## Adrian Garcia

Lanpetuta ibiliko dira gaur, ostirala, Euskarako Gazte Batzordeko kideak: Korrika pasako da Lasarte-Oriatik. Aste batzuk daramatzate ekitaldirako prestatzen. Korrika Txikia goizean egingo dute, eta 15:30ean Usurbildik iritsiko da lekukoa Hipodromoko zubira. Baina atseden hartzeko tarterik ez dute edukiko. Makarronada antolatu dute eguna girotzeko; 130 ikaslek indarrak berrituko dituzte pastari esker Okendo plazan.

Bi astean behin elkartu ohi dira DBHko eta batxilergoko ikasleak. Hiru taldetan daude



DHBko gazteak, Uxue Otxandorena eta Ander Rekondo koordinatzaileekin. TXINTXARRI

banatuta: DBH1 eta 2; DBH 3 eta 4; eta batxilergoko bi mailak. Ikasturte osoa egin dute horrela, bazkalorduan biltzen, euskararen aldeko ekimenak antolatzeko.

## Ttakunenean bilkura

Goizeko eskolak bukatuta, otordua tuper-ean eramanda Ttakunenean dute zita gaztetxoek. 15 minututan jan, eta borobilean biltzen dira, Ttakun Kultur Elkarteko Kuadrillategiko koordinatzaileen gidaritzapean. Autonomoak dira batzordeak, hau da, erabakiak haien kabuz hartzen dituzte ikasleek. Baina euskara elkarteak dinamizatzen du ekimena.

Ikasturte osoan egin dute lan, betiere euskararen aldeko ekimenetan burua jarrita. Euskaraldia egokitu zitzairen kurtso hasieran. Berez, 11 eguneko ariketa soziala 16 urtez gorakoentzako prestatu zuten. Ondorioz, DBHko gaztetxoak kanpoan geratu ziren. Halere, egin zuten Euskaraldia, haien propioa: *Gazteon Euskaraldia*. Lehenik, txapa lehiaketa antolatu zuten, gero marrazki

irabazlea hautatu, eta, azkenik, ariketa haien kabuz egin.

## Rol jokoak, euskaraz

Ikastetxeetan jartzeko afixak ere egin dituzte, baita bideoak ere, giroa jartzeko ekitaldiaren aurretik. Batxilergoko ikasleek ekimen berritzaile bat ere egin dute: *psikokiller* rol jokoan ari dira jokatzeko ikasturte osoan. Eskola orduz kanpo aritzen dira, kalean. Jokalari bakoitzak helburu bat du, beste pertsona batenak egitea. Baina horretarako, beharrezkoa da jokalari horrek hitz edo esaldi bat ahoskatzea. Hori da helburua: hitz horiek esateko testuingurua probokatzea. Joko horren atzean xede argia dago: kaleko euskararen erabilera bultzatzea gaztetxoaren artean.

Edonola ere, orain makarroi janean dute burua Gazte Batzordeko ikasleek. Beharrezko materiala prestatu, mahaia eta aulkiak lortu, makarroiak erosi, nola egin antolatu... Eta bitartean, jarraituko dute herria girotzen: euskal zunba prestatu dute bazkalaurretik. Dena auzolanean eta euskaraz.

## ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943 361 379 / 610 441 544 • LASARTE-ORIA

## M.BERASATEGI

DESDE 1961 ETIK

• KAFE & TEA •

ika, ika, ika...

## hemen dator Korrika!

www.cafesberasategi.com



Batzarkideak, EH Bilduren mozioaren alde bozkatzen, joan den asteartean. TXINTXARRI

## Aparkalekuen mozioa, hiru urteren ondoren

Udalbatzarrak adostu du aparkalekuei buruzko parte hartze prozesua egitea, EH Bilduk proposatuta. 2016an mozio berbera onartu zuten, baina berriro ere aurkeztu dute, udalak bete ez duelakoan. PSE-EEren botoen aurka atera da ekimena

### Adrian Garcia

Gai zerrenda luzea izanagatik, azkar batean egin zuten aurreko asteartean apirilko ohiko udalbatzarra. Bat izan ezik, beste guztiak aho batez onartu dituzte, hamasei batzarkideen aldeko botoarekin (EH Bilduko Kristina Bernal izan da agertu ez den bakarra). EH Bilduk aurkeztutako aparkalekuei buruzko mozioa izan da eztabaida sortu duen bakarra; udalari eskatu diote "behar den seriotasunarekin" parte hartze prozesua egitea. Luze gabe atera da aurrera. PSE-EEren gehiengo ez da nahikoa izan; ADLOP eta EAJren botoekin, eta PPren abstentzioarekin onartu dute.

Duela hiru urtekoa da gaia. 2016ko batzarrean adostu zuten aho batez herriko aparkalekuei buruzko prozesu parte hartzaile bat egitea, eta ondoren, ekintza plan bat aurkeztea Zerbitzu Publikoetako Batzordean.

Pablo Barrio EH Bilduko bozeramaileak salatu duenez,

ordutik udalak ez du bete mozioan jasotakoa. Haren arabera, "orri zuriaren ereduari" oinarritutako parte hartze prozesua egin dute. "Nola da posible inolako aholkularitza teknikorik gabe, eta herritar, eragile eta elkarteekin bildu eta txostenak partekatu gabe egitea prozesua?". Horrexegatik, "eskakizun berbera" mahai gainean jarri du Barriok: "Parte hartze prozesu bat modu serioan abiatzea eskatzen dugu".

### Beste gaiak, aho batez

Udalaren jarrera defendatu du Agustin Valdivia PSE-EEko Hirigintza zinegotziak: "Prozesua bururaino eramane da". 2016ko mozioaren ondotik hartutako

### ELKARTEENTZAKO LOKALEN ARAUDIA UDAL BOZEN ONDORREN LANDUKO DUTE

erabakiak azaldu ditu ordezkari sozialistak. Udalbatzarrak aparkalekuei buruzko prozesua egitea eskatu ondotik, parte hartze prozesua hasi zuten. "65 proposamen jaso genituen". Horiek kontuan hartuta, ekintza plana zehaztu zuten gero. "Ez zenuten ezer adierazi orduan", esan die oposizioko alderdiei.

Beste gai guztiak aho batez adostu dituzte batzarkideek: ekintza sozialak egiten dituzten elkarteentzako diru laguntzen oinarriak; Euskara Sustatzeko 2019-2022 Plana; Eskolako materiala erosteko laguntzen oinarriak; merkataritzako enpresa txikiak sortzeko diru laguntzen oinarriak; eta Herritarren Aholku Kontseiluaren Erregelamendu arautzailea.

Galdera eta erreguen orduan, Jesus Zaballos alkateak azaldu du ez dutela elkarteentzako lokalen araudia garaiz bukatuko, hauteskundeak ate joka daudelako.



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

## Herritarrei eta elkartei esker

Urte benetan zaila izan zen iazkoa; izan ere, duela 25 urte Ttakun Kultur Elkartek Udako Txokoak sortu zituenetik, udalaren laguntzarik gabe antolatu baitzituen. Lan eta buruhauste askoren ondotik, aurreko urte izango dira betiko txokoak herrian, bigarren urtez udalaren laguntzarik gabe.

Udako Txokoak urteroko hitzarmenetik atera zituen iaz udalak, eta lizitaziora aurkeztu. Lehiaketa publiko horretan, eskaintza ekonomikoa lehenetsi zen kalitatearen gainetik, eta, ondorioz, enpresa bati adjudikatu zizkion.

Mende laurdenez mimoz zaindu ditu Ttakunek Udako Txokoak, elkartearen zutabeetako bat direlako. Gaztetxoenei euskarazko espazioak eskaintzen dizkiete, eta adinean gora egin ahala, euskarazko beste programetan parte hartzeko abiapuntu dira. Urte hauetan guztietan, proiektua eraikitzen joan gara, balio pedagogikoak eta hezitzaileak indartzeko. Eta horrela jarraitzeko asmoa dugu. Horregatik da berebizikoa proiektuari eustea diru laguntzarik gabeko urte zail hauetan. Eta bigarren urtez lortu badugu aurrera eramatea, arrazoi batengatik da: Lasarte-Oriako herritarrek eta elkarteek ekimena babestu dutelako. Horrexegatik, lerro hauen bidez eskerrak ematen dizkizuegu gugan jarritako konfiantzagatik eta erakutsitako atxikimenduagatik.

Tamalez, bizi dugun egoera dela eta, ezinezkoa zaigu nahiko genukeen adina haur hartzea Udako Txokoetan. Baina gauza bat ziurra da: lanean jarraituko dugu etorkizunean Lasarte-Oriako haur guztiek parte hartu ahal dezaten. Euskarazko espazioak sortzea baita aurrera egiteko bidea.

## Aniztasuna eta inklusioari saria

GaituzSport Fundazioak eta Kirol Egokituko Euskal Federazioak kirol arlotik kanpo "aniztasuna eta inklusio soziala" lantzeagatik saritu ditu Porrotx eta Bizipoza elkarteak. Joan den ostegunean jaso zuten GaituzSport saria Kursaal. Porrotx eta Bizipozako ordezkariekin batera, Jalgune elkarteko eta Ostadarreko ordezkariak igo ziren oholtzara.



TXEMA VALLES



TXEMA VALLES

## Politikariei laguntza eske

Lasarte-Oriako Pentsiodunen eta Erretiratuen Koordinakundeak ohi bezala bilkura egin zuen Okendo plazan, astelehenean. Ondoren, bertan zeuden EH Bildu, ADLOP eta EAJ alderdi politikoetako kideei txapa eta diptiko bana banatu zizkieten, eta alkatearengana joan ziren, txapa eta diptikoa eman eta irtenbideak bilatzen lagun dezan eskatzera.

# Aintzane Usandizagak lehen liburua kaleratu du

Lasarteoriatarren zortzi ipuinekin osatutako lana da 'Kabitu ezina'. Gizarte harremanak ardatz dituzten kontakizun autonomoak dira, egunerokotasunean oinarrituak. Bestalde, Harkaitz Canok Espainiako Kritikaren Saria jaso berri du

## Txintxarri

Lagun batzuen txakurra zaintzen uda pasa behar duen Judith, ama hil zorian duten hiru anai-arreben topaketa aspaldiko partez, bikote baten bidaia okertuko duen ezusteko txikia... pertsonaia arrunt horien egunerokotasuna marraztu du Aintzane Usandizagak (Lasarte-Oria, 1988) bere lehen liburuaren lerroetan. *Kabitu ezina* izenburu pean bildu ditu zortzi ipuinak eta Elkar argitaletxeak kaleratu berri du. Lana atzo, osteguna, aurkeztu zuen egileak, Xabier Mendiguren alboan zuela, Donostiako San Jeronimo kaleko liburutegiko sotoan.

Kontakizun autonomoak dira, bakoitzak bere pertsonaia eta unibertso propioekin; baina, hala ere, badira behin eta berriro agertzen diren gaiak, zuzenean edo zeharka: heriotza, bakardadea, normala edo lekuz kanpokoa denaren auzia... Gizarte harremanak dira ardatz nagusietako bat, bereziki, lagun taldean, familian edo lan eremuan sortzen direnak. Taldean ematen diren dinamikak, inertziak, oreka eta desorekak interesatzen zaizkio Usandizagari. "Nork bere burua, bere izaera ere taldearen arabera eraikitzen du, haren alde zein kontra".

Istorioretako batzuk sortzen hasi zenean, oraindik ez zuen gogoan bilduma bat osatzea. "Duela urte eta piko hasi nintzen batasun bat ematea pentsatzen, lehiaketa batera proiektua aurkezteko". Ez zuen irabazi, baina harekin aurrera jarraitzea erabaki zuen. Orduan jabetu zen bazela kontakizunetan nabarmentzen zen sentipen bat edo sententzia multzo bat forma ezberdinak hartzen zituena pertsonaia edo istorioaren arabera: kabitu ezina. Hain zuzen ere, bildumari izena ematen diona, egileak hala



Aintzane Usandizaga idazlea ostegunean egindako aurkezpenean. ELKAR

azaltzen duena: "Nork bere baitan egoteko ezintasuna, egoera batean harrapatuak sentitzea, ingurua ez ulertzea, lekuz kanpo sentitzea..."

Genero gisa ipuina aukeratu du irakurle bezala asko gustatzen zaion generoa delako, "kontatu baino iradoki egiten duenean". Hau da, "irakurketa zabal eta askeago bat" eskaintzen dute "irakuleari lekua uzten diolako osatzeko bere esperientzia eta ikuspegitik". Horrez gain, helduen literaturan ohikoa ez bada ere, kontakizunak Pili Aguado ilustratzailearen marrazkiekin lagundu dituzte.

### Fakirren ahotsa, saritua

Harkaitz Canok Espainiako Kritikaren Saria irabazi du *Fakirren ahotsa* eleberriagatik.

Imanol Larzabal abeslariaren bizitzan oinarritutako fikziozko kontakizuna iazko euskarazko libururik onena aukeratu du Literatur Kritikarien Espainiako Elkarteak igandean ezagutarazi zuenez. Aurretik beste bitan jaso du aitortza hori lasarteoriatarrek, *Neguko zirkua* (2005) narrazio liburuagatik eta *Twist* (2011) eleberriagatik.

Halaber, Euskal Literaturazaleen Akademiaren 2018. urteko sariko finalista ere bada Cano. Bi bozketaren ondoren, akademiakideek bere eleberria edo Katixa Agirreren *Amek ez dute* obraren artean hautatu behar izan dute sariduna. Astelehena arte zuten beraien erabakia hartzeko eta hilabete amaieran ezagutaraziko dute ebazitakoa.



TXINTXARRI

## Elkarteen urtekaria aurkeztu dute

Hirugarren urtez jarraian, Lasarte-Oriako askotariko elkarten izaera eta jardura bildu dituzte *Sustraiak eta hegoak* urtekarian. Ketxus Marcosek eta Jesus Mari Egizabalek koordinatutako lanak 38 elkareren lekukotza jaso du, iaz antolatu zituzten ekimenei erreposoa eginda. Astelehen arratsaldean aurkeztu zuten ale berria Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan.

## Udan Txernobyngo haurrak hartzeko familiak behar dituzte

Udako oporraldian Txernobyngo (Ukraina) haurrak harreran hartuko dituzten familia bila dabil Chernobil Elkarteak. Hala, 1986ko ezbehar nuklearraren ondorioak arindu eta euren osasuna indartzeko aukera izaten dute. Interesa dutenek 670 419 078 telefonora deitu edo [chernobil@asociacionchernobil.info](mailto:chernobil@asociacionchernobil.info) helbidera idatz dezakete.

## Hirukideek bere jardunaren berri eman du Merceron

Euskadiko Kide Ugariko Familien Federazioak (Hirukide) elkarteak aurrera daraman lanaren berri eman zuen asteazkenan Mercero gunean egindako hitzaldian. Hiru seme-alaba edo gehiago dituzten sendiei eskaintzen dizkieten zerbitzuak azaltzeaz gain, erabiltzaileei dagozkien eskubideen eta abantailen berri ere eman zuten.



LASARTE-ORIAKO UDALA

## Poniaren jabea aurkitu ezinik

Lehenengo astean galdutako poni bat agertu zen Trentxiki inguruko lursail batean. Lursailaren jabeak udaltzainei ohartarazi zien, eta ordutik, animalaren jabearen bila dabilta. Udalak zeregin horretan diharduen arren, edizio hau itxi denerako, oraindik poniaren auzia argitu gabe zegoen. Zazpi eguneko epean jabea agertuko ez balitz adopzioan emango dute.

# Hirugarren izango da ligan Ostadar SKT

Ligako oilarretako biren arteko neurketa Maialen Chourraut Kiroldegian: Ostadar SKT, Antigua Luberriren aurka. Donostiarrak hobe aritu dira, eta merezita irabazi dute, 43-53. Ondorioak izan ditu porrotak sailkapenean: hirugarren postuan bukatuko dute

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Gu baino hobeak izan dira. Ez dago besterik". Ostadar SKTren entrenatzaile Ander Otaegiren analisia, larunbat arratsaldeko partida bukatu berri. Ligako talde indartsuenetako bik neurtu zituzten indarrak Maialen Chourraut kiroldegian, eta meritu gehien egin zituenak, Antigua Luberrik, poltsikoratu zuen neurketa. Garaipena bakarrik ez, bigarren postua ere eraman zuten donostiarrek Lasarte-Oriatik. Epaileak baloia airera jaurti aurretik urdin-beltzak zeuden aurretik sailkapenean, baina 43-53 galdu zuten, hirugarren postuarekin konformatu beharko dute. Lehenengo fasea bukatzeko jardunaldi bakarra falta da. Kanporaketetan seigarren sailkatuaren aurka jokatuko dute, Aste Santutik bueltan; ikusteke dago zein izango den talde hori.

Antigua Luberrri da senior probintzial 1. mailako talde "fisikoa eta indartsua", Otaegik azpimarratu duenez. Ezaugarri horiek talka egiten dute Ostadarrenekin. Lasarte-Oriatarrek ez dira horren altuak, ez dira horren fisikoak, baina baloia oso ongi mugitzen dute eta bizkorak dira jokoan. Larunbatean, ordea, ezin izan zuten beraien joko estiloa guztiz erakutsi, donostiarrak hobeak izan zirelako. Errebotean eta defentsa lanetan, batik bat. Lehen laurdena paretsua izan zen, hala ere. Yaiza Navarrok hiruko bat sartu zuen bozina jotzeaz zela, 10-12ko emaitza ezarri markagailuan. Euren saskia ongi defendatu zuten urdin-beltzek, baina kamuts aritu ziren erasoan.

Aurreneko hamar minutuetako oreka erabat desagertu zen bigarren laurdenaren hasieran. Ostadarrek erabaki oker batzuk hartu zituen erasoko jokaldietan, eta Luberrik ez zuen barkatu. 0-8ko partziala sartuta, hamar puntuko langa psikologikoa gainditu zuten donostiarrek aurreneko, eta



Ostadarreko jokalaria Haizea del Olmo, baloia saskiratu nahian. TXINTXARRI

etenaldia eskatu behar izan zuen Otaegik. Erabaki ona izan zen: etxeok odol-jarioa eten zuten, eta jokaldi hobeak egin. Atsedendiko markagailua, 23-31.

## Erreakzioa, beranduegi

Hirugarren laurdenean galdu zituen partida irabazteko aukera guztiak Ostadarrek. Bigarrenen gertatu bezala, hotz ekin zion etxeko taldeak, eta, ohartzera, 25-37 ari zen galtzen. Otaegik zuzendutako taldea ez zebilen eroso kantxan, ez zuen lortzen posizio onetan jaurtitzea, eta epaileak ere ez zuen lagundu, zenbait falta ez zituelako ikusi. Bien bitartean, zarata handirik atera gabe, puntuak pilatzen segitzen zuen Antigua Luberrik. Azkeneko hamar minutuetara hemezortzi puntuko aldearekin iritsi ziren: 27-45.

Zerua beltz egonda ere, Ostadarrek ez daki amore ematen. Ordura arte ez bezala, hiruzpalau jokaldi on egin zituen segidan, erasoan zein defentsan. Zaleen animoek hauspotuta, eta presio oso altua eginda, estu hartu zuten Antigua Luberrri, eta apurka-apurka aldea jaten hasi ziren. Ez zen aski izan, ordea, beranduegi erreazionatu

zuelako taldeak. Gutxienez lortu zuen markagailuko aldea dezente murriztea: 31-50etik 43-53ra.

Larunbateko porrotaren ostean, badirudi ligan hirugarren geratzea hondamendia dela Ostadarrentzat, baina komeni da orain arte egindako guztia aztertu eta erlatibizatzea. Lehenengo hamasei partidetatik hamalau irabazi zituzten urdin-beltzek. Izugarria. Egia da azken jardunaldietan kosta egin zaiela erritmo hori mantentzea eta dinamika negatibo batean sartu direla -azken bost partidetatik lau galdu dituzte-, baina ezin izan dute sasoi hasieran bezala konpetitu, lesio eta beste zenbait arazo tarteko.

Garrantzitsua da liga ahalik eta ongien bukatzea eta Aste Santuko oporraldian indarrak hartzea. "Ongi etorriko zaizkigu bi aste horiek pilak kargatu, deskonektatu eta dinamika aldatzeko. Ea datorren astean irabazten dugun", dio Otaegik. Goierri Aymaren aurka ariko dira, Urretxun. Maiatzeko aurreneko asteburuan hasiko dira kanporaketak. Partida bakarrera izango dira final laurdenak. Hirugarren geratu direnez, etxean jokatuko du Ostadarrek.



Lorena Zabala -erdiko ilara, ezkerreko laugarrena- eta taldeko kideak. ESPAINIAKO SELEKZIOA

## Zabalak brontzea eskuratu du izotz hockeyko Mundialean

Herritarrak ez du atsedetik izango, Sumendi taldeak Espainiako Kopako finalerdia jokatuko du bihar

### Nerea Eizagirre

Espainiako izotz-hockey taldeak hirugarren postuan amaitu dut II. mailako A taldeko munduko txapelketa. Mailan jokatzen zuen lehen aldia izan arren, taldeak domina eskuratzeko buruan, eta helburua lortu du. Lehen partidetan Eslovenia eta Mexiko garaitu zituen eta lehena zegoen sailkapenean. Ipar Korea eta Britainia Handiaren aurkako partidetan, ordea, ez zuen zortirik izan. Edonola, Australiaren aurka lortutako garaipenak brontzezko postua eman dio.

Mexikoren aurka partida ederra egin ostean, Ipar Korea izan zuen arerio Espainiak. Taldeak lan ona egin zuen arren, penaltietan erabaki zen irabazlea. Korearrek zortea alde izan zuten,

2-1 irabazita. Igandean, Britainia Handiaren aurka gogoz atera ziren Espainiako jokalariek, baina ezin izan zuten partida osoan intentsitatea mantendu eta 4-1 galdu zuten.

Bi porrot horiek sailkapeneko lehen postuetatik jaitziaz zuten Espainia, baina azken partidaren, Harry Rosenholtz-ren neskek ez zuten hutsik egin, eta 2-3 gailendu zitzaizkion Australiari.


Lorena Zabala herritarra pozik dago munduko txapelketan lortutako postuarekin eta egindako lanarekin. Orain Espainiako Kopako final erdia du buruan. Txuri Urdinen aurkako partida jokatu behar du Sumendik bihar eta Ligako arantza kendu nahi du, taldeak Ligako finalean egotea galarazi baitzien.

## Mendibe bikain Euskadikoan

Durangoko duatloian bigarren geratu da Maria Mendibe Lasarte-Oriako triatleta, baina lehen euskal herritarra izan denez, esprint modalitateko txapelketa irabazi du.

Proba bizkorra da esprint motako duatloia: 5 kilometro korrika, 20 bizikletan, eta beste 2,5 kilometro lasterka. 1:16:59-ko denbora behar izan zuen lasarteoriatarrek proba osatzeko. Bizikletako zatian marka ona eginda aurreratu ahal izan zituen postu asko sailkapenean.

Baina ez da Mendiberen azken boladako garaipen bakarra izan.



NAIKEFOTO

Erandioko esprint modalitateko duatloia ere irabazi zuen orain bi asteburu, 1:14:25-ko denborarekin.

# Herriko txapelketako liga, azken txanpan

Hiru jardunaldi besterik ez dira falta herriko areto futbol txapelketako lehenengo fasea bukatzeko. Aurreneko lau sailkatuek txapeldunen fasea jokatu dute; beste bostek, berriz, kontsolaziokoa. Bar Buenetxea da liderra, 30 punturekin

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Fase erabakigarria gerturatu ari da herriko areto futbol txapelketa. Liga erregularra bukatzeko hiru jardunaldi falta dira, eta gauza asko daude erabakitzeke oraindik. Esate baterako, nor geratuko den lehenengo. Bar Buenetxea da liderra, 30 punturekin. Insausti Tabernaren itzala oso gertu sumatzen du iazko txapeldunak. Bigarren sailkatuak dira gorri-beltzak, 28 punturekin. Biek hamabi neurketa jokatu dituzte orain arte, atsedendia tarteko —bederatzi talde konpetitzen ari direnez, asteburu batek atsedean hartzen du; asteburu honetan, Patricio Cocktail Barrek—.

Buenetxeak eta Insaustik ia bermatuta daukate txapeldunen fasera sailkatzea. Beste bi txartel daude jokoan. Horiek poltsikoratzeko lehian, hiru talde: Asador Irigoien, 24 punturekin; Patricio Cocktail Barrek 22 pilatu ditu; Trumoi Tabernak, aldiz, 20. Asador Irigoienek eta Trumoi partida bat gehiago jokatu dute.

Kontsolazio fasearekin konformatu beharko dute ligako azken bost sailkatuek. Academia Londonek ez dauka inolako aukerarik: oraindik ez du lortu punturik batzea. Urnietako



Insausti Tabernak 4-9 irabazi zion Viña del Marri larunbat goizean. TXINTXARRI

hainbat jokalarik osatutako taldeari kosta egiten ari zaio txapelketari neurria hartzea. Matematikak esaten dute Viña del Marrek, Izen Gabek eta Avenida Tabernak ere ia ezinezkoa dutela fase horretan sartzea. 11, 13 eta 13 puntu dituzte, hurrenez hurren. Jokoan 12 geratzen dira Viña del Mar eta Avenidarentzat, eta 15 Izen Gaberentzat. Denak zakuratu beharko lituzkete, eta goiko taldeek ia guztiak galdu.

Larunbatean jokatu zuten 14. jardunaldia. Asador Irigoienek 8-4 irabazi zion Avenida Tabernari; Trumoi Tabernak 3-7 galdu zuen Bar Buenetxearen aurka; Academia Londonek, 2-10 Izen Gaberen aurka; eta, azkenik, Viña del Marrek 4-9 Insausti Tabernaren aurka.

Javi Gomez da txapelketako golegile nagusia orain arte: 27 gol sartu ditu. Gertu dauka Ander Pecharroman, iazko *pitxitxia*, 25 golekin.



TXINTXARRI

## Egin zitekeen omenaldi onena

Garoa Taberna Eguzki taldekideek aitortza xume baina hunkigarria egin diote luzarorako min hartuta dagoen Lara Torinos kapitainari, partida hasi baino lehen animoak emateko afixa erakutsiz. Omenalditxo ez da hor bukatu, ordea, etxeko taldeak 3-1 irabazi diolako Idiazabali. Bitik bi neurketa irabazi ditu bigarren fasean; liderra da. Jardunaldia oso-oso ona izan da Eguzki klubaren talde federatuentzat. Denek irabazi dute, jubenilek izan ezik. Eta horiek ez dira esku hutsik geratu, berdindu eta puntu bat zakuratzera lortu dutelako.

## Eguraldi txarra, baina postu onak Donostiako Maratoi Erdian

Herritar ugari parte hartu dute Donostiako Maratoi Erdian, baina batez ere 10 kilometroko proban

### Txintxarri

Proba azkarra da Donostiakoa, erabat laua, a proposa korrikalariak haien marka pertsonalak ondu ditzaten. Maratoi erdiak zirkuituari bi bira ematen dizkio, eta 10 kilometroko probak, bakarra.

Azken proba horretan lortu dituzte emaitza esanguratsuenak herritarrek. Raul Gomez Margallo seigarren izan da (32:29), bigarren beteranoen kategorian. Jon Presa

korrikalari gaztea atzetik iritsi da, zazpigarren postuan, bere marka pertsonala onduta (32:50). Maite Salazarrek ere lasterketa ona egin du, atzetik aurrera eginez: 40 minutu eskasetan osatu du ibilbidea, eta zazpigarren geratu da, laugarren seniorra.

Maratoi erdian ere atera dira herritar batzuk. Tartean, Mari Carmen Olaso. 1:34:30 denborarekin hamargarren geratu zen beteranoen kategorian.




ELECTRICIDAD  
ARREGUI

600 857 586

www.electricidadarregui.com

tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Etxerako LED argiak  
Diseinu berritzaileena, guztion eskura



Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/Hi-Fi • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21


## ZORION AGURRAK




**Maialen**  
Zorionak preziosa, ondo-ondo pasa eta segi horrela. Maite zaitugu!!!



**Nahia**  
Zorionak bihotza! 7 urte pasa dira gure bizitzetara iritsi eta gu alaitzen hasi zinenetik! Infinito maite zaitugu! Ekhi, Amatxo eta Aitaxo.



**Aizpea**  
Zorionak maitia!!! Jada z azpi tiradaxo belarribotik! Muxu handi bat familiakoan partetik!



**Mila eta Juanjo**  
Zorionak zuen urrezko ezteietan. Muxu asko familia osoaren partetik. Bihotzez.



**Iraia**  
Zorionak!!! Etxeko guztien partetik muxu pila!



**Antonio eta Marixabel**  
Apirilaren 12an lasartear bikote honek urrezko ezteiak ospatu ditu. Familiartekoako oso zorionsu gaude egun berezi hau beraiekin igarotzen. Zorionak.



**Olatz**  
Zorionak Olatzita!!! Ondo ospatu larunbatean!! Familia osoaren partetik.

## GUTUNAK

### Alokairu sozialaren aitzaki pean, bazka eman konstruktoreei

#### LASARTE-ORIAKO EH BILDU

Otsailaren 12ko Udaltzarrak Oriagaingo hursaila Jaurilaritzari dohainik emateko hitzarmena onartu zuen. Hitzarmenak planeamendua aldatu eta alokairu sozialean jartzeko etxebizitzak egitea du helburu.

Alokairu sozialaren defendatzaile sutsuena EH Bildu da, eta horren frogara da, pleno horretan bertan, Hipodromo Etorbidean udalak jabetzan dituen 30 etxebizitzak alokairu sozialean jartzeko egin genuen proposamena (plenoak onartu ez zuena, bide batez). Baina bide guztiak ez dira onargarriak, gure ustez, eta hori da Oriagaingo kasua. Horregatik hainbat alegazio aurkeztu dizkiogu hitzarmenari. Labur-labur:

- Landa-lurrak artifizializatu baino lehen, etxebizitza behar errealak eta jasangarriagoak izan daitezkeen beste alternatibak (etxebizitza hutsak...) aztertu beharko lirateke. Ez da inongo ikerketarik egin Oriagaingo zelaia zementuz betetzea justifikatu duenik.

- Une honetan, hitzarmena ez da egingarria Lurralde Antolamenduaren Gidaleroek ezarritako etxebizitza

berrien kopurua (1.224) gaindituta dagoelako dagoeneko.

- Proiektuak ez dio antolamendu arrazional bati erantzuten: auzo isolatu bat sortzen da, zerbitzu eta ekipamendu publikoetatik urruti, derrigorrez kotxea erabili beharrekia, ghetto bilakatzeko arriskuarekin, bertara joango den jendeak baliabide ekonomiko handirik ez baitu izango...

- Udalak Hiri Antolamendu Plan Orokor berria landu behar du laster, bertan, lurzoruen kalifikazio eta erabilerak definituko dira. Ez du zentzurik horrelako hitzarmena orain sinatzea, jakinda udal hauteskundeak eta gero, korporazioaren osaketa eta irizpideak aldatu daitezkeela.

Guzti honengatik, aurkeztutako alegazioak kontutan hartzea eskatzen dugu. Eta, edozein kasuan, une honetan Hitzarmenari behin betiko onarpena ez ematea, hurrengo korporazioak, herritarrekin partekatu ondoren, erabakia hartzeko.

Historikoki, Lasarte-Oriako urbanismoa konstruktoreen interesei eta etekinei begira lerratu da. Inoiz ez da planteatu gogoeta kolektibo bat, herritarren interesen ikuspegitik zein motako herria nahi dugun adosteko. Plan Orokor berriak aukera ematen digu orain, ez dezagun galdu.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 12	DE MIGUEL
Larunbata, 13	ORUE
Igandea, 14	ORUE
Astelehena, 15	URBISTONDO
Astearte, 16	GIL
Asteazkena, 17	ACHA-ORBEA
Osteguna, 18	LASA
Ostirala, 19	LASA
Larunbata, 20	LASA
Igandea, 21	LASA
Astelehena, 22	LASA

#### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu:  
Urbietako kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**  
**ERRENTAN EMAN**  
Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutiozabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

**LANA**  
**ESKAINTZA**  
Emakume bat behar da txalet batean etxeko lanak egiteko. Astean egun bat izango litzateke 3 orduz. Beharrezkoa da kotxea edukitzea. Interesatuak deitu telefono honetara: 646 485 811.

**SALEROSKETA**  
**SALDU**  
Ohe artikulatua salgai, motorrarekin, biskoe-

lastikako kotxoia eta guzti, salgai. 190x90. Erabili gabea, berri-berria. 700 euro. Harremanetarako: 610 953 258.

Piaggio 50 ZIP 2T motorra salgai. Oso egoera onean eta prezio merkean. 500 euro. Harremanetarako: 610 953 258.

**BESTELAKOA**  
Igor Lejartzaren 'Ilargi Guztiak' azken filma egiteko castinga egingo dute: ume euskaldunak behar dituzte. 10-13 urte bitarteko neskak, eta 11-16 urte bitarteko mutilak. Parte hartzeko bidali gazteboen datuak (herria, adina) eta argazkia [ilargiguztiakcasting@gmail.com](mailto:ilargiguztiakcasting@gmail.com) helbidera.

## OHARRAK

### Biyak Bat elkartearen irteera

Biyak Bat elkartearen kideek Medina de Pomarrera egingo dute bidaiara apirilaren 26an. Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, aldiz, 45 euro. Izena ematea elkarreko bulegoan egin behar da, astelehene ostiralera 10:30etik 12:30era.

### Geltoki aldaketa

Basaundi bailara auzoko lanak direla eta, autobus geltokia lekuz aldatuko da. Lasarte-Oriako erdialdera edo Donostira joan nahi duten herritarrek 100 metro aurrerago hartu behar dute autobusa.

Hurrengo

txintxarri

aldizkaria

maiatzaren 3an

kaleratuko dugu

Bidali jakinarazpenak, oharrak,  
zorion agurrak, gutunak...  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)-era edota  
whatsapp bidez: 688 68 35 10

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Elizagire, Iñigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

#### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galaridi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

#### Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoebea.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

#### Inprimategia

Zerua Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Korrika.** Lasarteoriatarrek Korrikaren lekukoa jasoko dute gaur arratsaldean. Lasterketa erraldoiari ongietorria egin baino lehen, hainbat ekintza izango dira. Ikastetxeetako txiki eta gazteek emango diote hasiera goizean egitarauari, Korrika Txikiarekin. Ostean, gazteek makarroi jana izango dute indarrak berreskuratzeko. Musika ere izango da kaleetan. Donostiak lekukoa hartu eta jaiak eztanda egingo du Okendo plazan. Dantza, antzerkia, herri kirolak, kantuak, bertsoak... denetarik izango da Korrikari agur esateko. Lasarte-Oria, egun osoa

## OSTIRALA 12

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Severiano Iglesias billabonatarraren margo erakusketa ikusgai dago, apirilaren 14ra arte.

Antonio Mercero aretoa, astean zehar, 18:00etatik 21:00etara; asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.

### LASARTE-ORIA Korrika Txikia

Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gazteek Korrika Txikia egingo dute. Ostean, 12:00etan, *Dantza!* ikasleen koreografiak, Okendo plazan. 14:00etan, gazteen makarronada egingo da. Lasarte-Oria, 11:00etatik aurrera.

### LASARTE-ORIA Korrika

Korrika igaroko da Lasarte-Oriatik: 15:00etan, Oaintxe in deul, Ttirriki Ttarrakak eta txistulariek kaleak alaituko dituzte.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Corgi: Las mascotas de la reina**

Igandea: 17:00.

**Creed II : La leyenda de Rocky**

Igandea: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

**Lo dejo cuando quiera**

Ostirala: 16:00,  
18:15, 20:30,  
22:45, 01:00.  
Larunbata: 16:00,  
18:15, 20:30,  
22:45, 01:00.  
Igandea:  
16:00, 18:15,  
20:30, 22:45.

### El parque mágico

Ostirala: 15:55,  
18:25, 20:20.  
Larunbata: 15:55,  
18:25, 20:20.  
Igandea: 15:55,  
18:25, 20:20.

### Mia y el león blanco

Ostirala: 15:50,  
18:00, 20:10.  
Larunbata: 15:50,  
18:00, 20:10.  
Igandea: 15:50,  
18:00, 20:10.

### ¡Shazam!

Ostirala: 16:20,  
18:10, 19:10,  
22:00, 00:40.  
Larunbata: 16:20,  
18:10, 19:10,  
22:00, 00:40.  
Igandea:  
16:20, 18:10,  
19:10, 22:00.

### Cementerio de animales

Ostirala: 16:10, 20:25,  
22:40, 00:50.  
Larunbata: 16:10, 20:25,  
22:40, 00:50.  
Igandea: 16:10,  
20:25, 22:40.

### Dumbo

Ostirala: 16:30, 17:55,  
19:00, 21:30.  
Larunbata: 16:30, 17:55,  
19:00, 21:30.  
Igandea:  
16:30, 17:55,  
19:00, 21:30.

### Nosotros

Ostirala: 15:45,  
21:15, 23:45.  
Larunbata: 15:45,  
21:15, 23:45.  
Igandea:  
15:45, 21:15.

### Capitana Marvel

Ostirala:  
15:40, 20:20.

### Larunbata:

15:40, 20:20.  
Igandea:  
15:40, 20:20.  
**Escape Room**  
Ostirala:  
22:50, 01:00.  
Larunbata:  
22:50, 01:00.  
Igandea: 22:50.

### After: Aquí empieza todo

Ostirala:  
18:10, 00:15.  
Larunbata:  
18:10, 00:15.  
Igandea: 18:10.

### Dolor y gloria

Ostirala:  
22:20, 00:40.  
Larunbata:  
22:20, 00:40.  
Igandea: 22:20.

### Mula

Ostirala:  
22:25, 00:55.  
Larunbata:  
22:25, 00:55.  
Igandea: 22:25.

15:30ean, Korrika Nagusia herriko kaleetan barrena.

17:00etan, Korrika jaialdiaren hasiera, Okendo plazan. Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako guraso-elkarteen eskutik koreografia.

17:30ean, Kukuka antzerki eta dantza eskolako taldeen ikuskizuna eta haurrentzako jokoak.

18:00etan, Xumela abesbatzaren

emandalitxoa.

18:15ean, Oaintxe in deul! Txarangak kaleak alaituko ditu.

18:45ean, Erromeria, Ttirriki Ttarrakaren eskutik.

20:00etan, pintxo afaria.

21:30ean, bertsolariak.

22:00etan, Esketxa.

23:00etan, Dj Ixter eta Karaokea. Lasarte-Oria, 15:00etatik aurrera.

# LUIS CAR

## autobusak

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

URTINEA

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL

943 917 562



LORADENDA  
EZKONTZA ETA  
EKITALDIAK  
DEKORAZIOA



**%30**eko  
**deskontua**  
eguzkitako betaurreko  
**GUZTIETAN**

Gure betaurreko guztiak  
**bilduma berrietakoak dira**



R.P.S. 175/15 I.L.G.

50 € edo gehiagoko PVP-ko eguzkitako betaurrekoetan aplikatzekoa.  
Galdetu optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste eskaintzekin batu.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com

RPS 233/13

*Udaberrian lotsarik  
gabe irribarre egin!*

**PROMOZIOA**  
**APIRILEAN ETA MAIATZEAN**  
**ZURIKETA + GARBIKETA**  
**200 €**

**aldaz**  
hartz klinikak · clínicas dentales

**943 36 63 77** LASARTE-TOLOSA-ELGOIBAR